



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/04/10

Enkarterriko Museoak “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” liburua aurkeztuko dau, Gorka Pérez de la Peña historialariak eguen honetan, Bilbon, eskainiko dauen berbaldiagaz

Gordexolako, Sopuertako eta Karrantzako etxe indianoak, Gueñeseko edo Santurtziko Udaletxeak, Portugaleteko batzokia eta Zaharren Miranda Egoitza eta Munoa Jauregia Barakaldon dira “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” liburuak jasoten dituan eraikin enblematikoetako batzuk. Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagon Enkarterriko Museoak argitaratu dauen liburua apirilaren 11n aurkeztuko da Batzarretako Bilboko egoitzan, arratsaldeko 19:00etan, Gorka Pérez de la Peña ikerlari eta liburuaren egileak emongo dauen berbaldiagaz. Ignacio Basañez Alfonso Euskal Herriko Elkargo Ofizialeko Bizkaiko Ordezkaritzako presidenteak be hartuko dau parte.

Lau urtez egin dauen ikerketa lan horrek, 1870 eta 1975 artean Enkarterrin eregitako eraikin guztien inentarioa jasoten dau, eskualdea modu zabalean eta historikoan ulertuta, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko udalerrriak barru hartuta. 20 udalerritan dagozan 1.300 eraikin dira guztira, eta horreetatik 500 liburuan jasota dagoz. Batzuetan oso ezaguna ez dan arren, arkitekturaren ondore hori Enkarterriko eta baita Bizkai osoko eta Europa mailako ondarearen elementu garrantzitsuenetakoa da.

Gorka Pérez de la Peñak XIX., XX. eta XXI. mendeetako urigintzaren eta arkitekturaren ganeko 37 liburu argitaratu ditu. Horreen artean “El arquitecto Fausto Iñiguez de Betolaza”, “Escuelas de barriada, un brillante ejercicio de arquitectura neovasca, 1919-1937” edo “100 obras maestras de la Arquitectura Residencial en Bizkaia” azpimarratu daitezke. Bihar, “Arkitektura Enkarterrin. Ikerketa proiektu barrizaillea. Bertako arkitektura berezietatik bidaia” berbaldia emongo dau.

Bere berbaldian, 54 eraikin azpimarratuko ditu, jentea, “parerik bako arkitekturen bitartez Enkarterriko arkitektura garaikidearen aurkikuntza pertsonalerako bidaia zirraragarria” egitera konbidauz. Bertan agertzen diranen artean, nazinoartean garrantzia daukien batzuk dagoz, Portugaleteko Bizkaia Zubia, Trapagako Zugaztieta auzoa, Sestaoko La Naval, Barakaldon dagon Miranda Adinekoren Egoitza (gaur egun Musika Udal Kontserbatorioa) edo Zallako Ur Araztegia, besteak beste.

Pérez de la Peñaren berbetan, “liburu honegaz, Enkarterriko Museoak, arkitekturaren historiografiaren eta gizarte orokorraren aldetik oso ezezaguna dan Enkarterriko kultur ondarea ezagutu arazoteko helburua beteten dau, holan, etorkizunerako belaunaldietarako gordetea bermatzeko, balioan jarritz”.

Liburuagaz batera, izenburu bera -“Enkarterri.1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira”- daukan erakusketea antolatu da. Sopusertan dagon Enkarterriko Museoan ikusi ahal izango da datorren irailaren 29ra arte. Erakusketea eta argitalpena Enkarterriko Museo ederra, berez be historiarako bizi dan artelana, urteetan egiten ari dan ikerketa eta historiografia lanaren barruan dagoz. Museoa, mende luzez foru gobernuaren egoitzea izan zan Avellanedako Batzarretxe zaharra da.

Sopusertan dagon eta Javier Barriok zuzentzen dauen museoa Bizkaiko Batzar Nagusien esku dago, eta Enkarterriko ondare historikoa, kulturala eta etnografikoa zabaltzeko behar handia egiten dau. Helburu horregaz, eta ohikoa danez, museoak liburuaren ehun ale baino gehiago bialdu ditu museoetara, liburutegietara, unibersidadeetara eta beste kultur gune batzuetara, eta salgai be jarri dau. Museoan bertan erosi ahal da.

Erakusketea eta liburua, Enkarterritik pasealdi bat emotean ikusi ahal doguzan estilo nagusien inguruan egituratzen dira: eklektismoa (1870-1915), neoeuskalduna (1908-1934), modernismoa (1901-1914), erregionalismoa (1925-1931), art déco (1921-1932), errazionalismoa (1930-1936), gerraosteko errazionalismoa eta estilo nazionala (1938-1951), 50eko hamarkadako modernidatea (1953-1959) eta funtzionalismoa eta organizismoa (1958-1975).

“Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketan batutako estiloak XIX. mendearen bukaeratik XX. mendearen bukaerara eregi ziran, industrializazioaren inguruan. Eskualdeko biztanleak bizi izan ziran etxeak, otoitz egin eben eleizak, sendatu ziran ospitaleak eta behar egin eben lantegiak dira, denporaren iraganari aurre egiten deutesien eta gure herrietako eta urietako egungo paisajea osotzen daben eraikinak, hain zuzen be.

HITZALDIA “ENKARTERRI.1870-1975. ARKITEKTURA GARAIKIDEAREN DISTIRA” LIBURUAREN AURKEZPENEA

Eguna: **Eguena, apirilaren 11**

Ordua: **19:00etan**

Tokia: **Bizkaiko Batzar Nagusien hitzaldi aretoan (Hurtado de Amezaga, 6. Bilbo)**

Parte-hartzaileak: **Ignacio Basañez Alfonso, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo**

Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzaren presidentea eta Gorka Pérez de la Peña Oleaga, liburuaren eta ikerketaren egilea

Sarrera doan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
10/04/2019

El Museo de las Encartaciones presenta el libro “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea” con una conferencia del autor, el historiador Gorka Pérez de la Peña, este jueves en Bilbao

Las casas indianas de Gordexola, Sopuerta y Carranza, los Ayuntamientos de Güeñes o Santurtzi, el batzoki de Portugalete y el Asilo Miranda y el palacio Munoa en Barakaldo son algunos de los edificios emblemáticos que recoge el libro “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”. Publicado por el Museo de las Encartaciones, dependiente de las Juntas Generales de Bizkaia, este libro se presentará mañana día 11 de abril en la sede bilbaína de las Juntas a las 19 horas, con una conferencia a cargo del historiador Gorka Pérez de la Peña, autor del libro e investigador. Participará también Ignacio Basañez Alfonso, presidente de la Delegación en Bizkaia del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro.

Este trabajo de investigación, que se ha prolongado durante cuatro años, recoge un inventario de todos los edificios construidos entre 1870 y 1975 en Las Encartaciones, entendiéndolo en un sentido tan amplio como histórico, e incluye así todos los municipios de la margen izquierda y zona minera. Son un total de 1.300 edificios -localizados en 20 municipios- y de los cuales 500 están recogidos en el libro. Aunque en ocasiones poco conocido, este acervo arquitectónico es uno de los más importantes elementos del patrimonio, no sólo de Las Encartaciones, sino de toda Bizkaia e incluso de Europa.

Gorka Pérez de la Peña ha publicado 37 libros sobre urbanismo y arquitectura de los siglos XIX y XX, entre ellos, “El arquitecto Fausto Iñiguez de Betolaza”, “Escuelas de barriada, un brillante ejercicio de arquitectura neovasca, 1919-1937” o “100 obras maestras de la Arquitectura Residencial en Bizkaia”. Mañana pronunciará la conferencia titulada “Arquitectura en Las Encartaciones. Un proyecto de investigación innovador. Un viaje a través de sus arquitecturas más singulares”.

En su charla, destacará un total de 54 edificios, obras singulares que pretenden invitar al público a que realicen “su viaje apasionante de descubrimiento personal de la arquitectura contemporánea de las Encartaciones a través de unas arquitecturas únicas”. Entre las obras despiden algunas de relevancia internacional como el Puente Bizkaia en Portugalete, el barrio La Arboleda en Trapagaran, La Naval en Sestao, el Asilo Miranda (hoy Conservatorio Municipal de Música) en Barakaldo o la Depurada de Aguas en Zalla.

En palabras de Pérez de la Peña, “con este libro, el Museo de las Encartaciones da cumplida satisfacción a su objetivo de dar a conocer un patrimonio cultural encartado muy desconocido, tanto en la historiografía de la arquitectura como por la sociedad en general, para así garantizar su salvaguardia para las generaciones futuras a través de su puesta en valor”.

Junto al libro, se ha organizado una exposición con el mismo título -“Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”-, que se puede ver en el Museo de las Encartaciones de Sopuerta hasta el próximo 29 de septiembre. La exposición y la publicación se enmarcan dentro de la labor investigadora e historiográfica que lleva años realizando el precioso Museo de las Encartaciones, una obra de arte en sí misma que vive por y para la historia. Este museo es la antigua Casa de Juntas de Avellaneda, centro del gobierno foral durante siglos.

Ubicado en Sopuerta y dirigido por Javier Barrio, este centro museístico perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, realiza una importante labor de difusión del patrimonio histórico, cultural y etnográfico de Las Encartaciones. Con ese objetivo y como es habitual, el museo ha enviado más de un centenar de ejemplares del libro a museos, bibliotecas, universidades y otros centros culturales y tiene a la venta el libro, que se puede adquirir en el propio museo.

Tanto la exposición como el libro se estructuran en torno a los grandes estilos que podemos contemplar dando un paseo por Las Encartaciones: eclecticismo (1870-1915), neovasco (1908-1934), modernismo (1901-1914), regionalismo (1925-1931), art déco (1921-1932), racionalismo (1930-1936), racionalismo de posguerra y estilo nacional (1938-1951), modernidad de los 50 (1953-1959) y funcionalismo y organicismo (1958-1975).

Los edificios reunidos en “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea” fueron construidos entre finales del siglo XIX y finales del silo XX, al albur de la industrialización. Son las casas en las que vivieron, las iglesias en las que rezaron, los hospitales en donde se curaron, las fábricas donde trabajaron durante años antiguos y antiguas habitantes de la comarca, edificios que resisten el paso del tiempo y que conforman el paisaje actual de nuestros pueblos y ciudades.

CONFERENCIA PRESENTACIÓN DEL LIBRO “ENCARTACIONES. 1870-1975. EL ESPLENDOR DE LA ARQUITECTURA CONTEMPORÁNEA”

Día: Jueves 11 de abril

Hora: 19:00

Lugar: Salón de Actos de Juntas Generales de Bizkaia (Hurtado de Amezaga, 6. Bilbao)

Participantes: Ignacio Basañez Alfonso, presidente de la Delegación en Bizkaia del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, y Gorka Pérez de la Peña Oleaga, el autor del libro e investigación

Entrada libre